

# Kulturaren Plan Estrategiko berri bat Nafarroarako **2024-2028**

Museoen mahaian parte  
hartzeko dutenentzako  
**lan-koaderno**

## Aurkibidea

1.- Aurkezpena	3
2.- Nola egingo dugu lan saioan?	4
<b>Lehen Zatia</b>	
3.- Abiapuntua: datu interesgarri batzuk	5
3.1.- Zer ondorio atera dira 2017-2023 NKPE-tik museoei dagokienez?	5
3.2.- Nafarroako museo eta museografia-bildumen egungo egoerari buruzko zenbait erreferentzia	9
3.3.- Lehenengo gogoetak eta erronkak museoan eremuan	13
<b>Bigarren zatia</b>	
4.- 2024-2028 NKPE berri baterako gogoetak eta ideiak partekatzen	15

## 1.- Aurkezpena

Nafarroako Gobernuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako Foru Komunitaterako Kulturaren Plan Estrategiko bat (NKPE) egitea sustatu, koordinatu eta kudeatzen du datozen urteetarako (2024-2028).

### Zein

#### helburu lortu nahi da?

Ekintza Plan bat eraikitzea da helburua, aurreko Planaren (2017-2023) ebaluazioan, egungo egoeraren diagnostikoan eta sektore profesionalaren eta herritarren ekarpenetan oinarrituta, Nafarroako kulturaren arloko jarduerak orientatzeko eta balioesteko tresna gisa balioko duena.

### Nola

#### eratzten da Plan hau?

4 lan-fase zehaztu dira:

I. eta II. faseetan, 2017-2023ko NKPE-aren ebaluazioa eta Nafarroako kultura- eta sormen-sektorearen egungo egoeraren diagnostikoa garatu dira.

III. fasean, herritarrekin eta kultura- eta sormen-eragileekin partaidetza-prozesuari heltzen zaio, zenbait lan-mahai antolatuz.

Azken fasean 2024-2028 NKPEa egingo da.

### Lurralde mahaien

#### helburua

Parte-hartze prozesua 2023ko azaroaren 6an hasiko da 15 saio sektorial, lurraldekoak eta zeharkakoak eginez hainbat herritan. Mahai sektorialak Iruñean egingo dira, eta gai hauek jorratuko dituzte: museoak; ondarea; arte plastikoak eta ikusizkoak; ikus-entzunezkoen industria/industria digitala; artxiboak eta dokumentu-ondarea; liburuak eta liburutegiak; arte eszenikoak eta musika.

Kulturaren eta sormenaren arloko profesionalen/eragileen eta horien azpistema guztien beharrak/zailtasunak/ahuleziak identifikatzea da helburua, eta 2024-2028 NKPE-aren estrategiak eta jarduera-ildoak eraikitzeko balioko dieten ekintza-proposamenak ezartzea. Mahai hauek interesa duen edozein kultur eragileri irekiak dira, eta izena eman ahal izango dute beren hausnarketak eta proposamenak partipianavarra webgunearen bitartez adierazteko.

## 2.- Nola egingo dugu lan saioan?

Nafarroako museoen beharrian eta lehentasunei buruz modu partekatuan hausnartzeko eta behar horiei erantzuteko gure ideiak emateko aukera izango dugu. Saioareen gidoia honako hau izango da:

Edukia	Arduraduna
<b>Lehen zatia</b>	
Ongi etorria NKPE saioaren helburuak  Testuinguru orokor laburra: aurreko planaren ebaluazioaren eta Nafarroako kulturaren egungo egoeraren diagnostikoaren emaitzak; hasierako gogoetak eta erronkak	Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia  Ikerpartners
<b>Bigarren zatia</b>	
<b>1. Lan dinamika:</b> Museoen balio-katea kontuan hartuta, zer behar, zailtasun eta ahulezia aurkitzen ditugu Nafarroako museoen eremuan? Kate-maila bakoitzean zailtasun eta ahulezia horiek identifikatzea eta lehenestea da helburua. Metodologia: Banakako gogoeta laburra + Taldekako gogoeta	Saioko parte-hartzaileak Ikerpartnersek dinamizatu
<b>2. Lan dinamika:</b> NKPE 2024-2028 berrirako IDEIEN MAPA bat eraiki Nola erantzun diezaiekegu aurkitutako zailtasunei? Nafarroan museoaren eremua garatzeko ideiak eta ekarpenak Metodologia: Taldekako lana + Taldekako gogoeta	Saioko parte-hartzaileak Ikerpartnersek dinamizatu
<b>Saioareen amaiera</b>	
Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia	

## LEHENENGO ZATIA

### 3.- Abiapuntua: datu interesgarri batzuk

#### 3.1.- Zer ondorio atera dira 2017-2023 NKPE-tik museoei dagokienez?

##### 1. Museoetara bideratutako gastua handitu egin da

2017 – 2022 urteen artean, % 52,5 igo da, eta balio altuena 2022an lortu du (5,7 milioi euroko gastua). Aldi osoan 29 milioi euroko gastua izan da, hau da, ondarearen alorreko guztizko gastuaren % 28 eta kulturako guztizko gastuaren % 11.

Kulturan gauzatutako gastuaren bilakaera, gastua nora bideratzen den arabera. 2017-2022

<b>Gastua nora bideratzen den:</b>	<b>2017</b>	<b>2018</b>	<b>2019</b>	<b>2020</b>	<b>2021</b>	<b>2022</b>
<b>Kulturako Zerbitzu Nagusiak</b>	<b>4.166.832</b>	<b>4.341.317</b>	<b>4.599.146</b>	<b>4.798.350</b>	<b>4.803.888</b>	<b>5.045.239</b>
<b>ONDAREA</b>	<b>13.892.242</b>	<b>16.750.190</b>	<b>17.334.227</b>	<b>17.484.266</b>	<b>18.465.880</b>	<b>19.857.797</b>
Ondare historikoaren administrazioa, kontserbazioa eta zaharberritzea, arkeologia	3.425.546	4.892.517	5.189.641	4.696.516	4.692.644	4.752.923
Liburutegiak	4.505.870	4.829.700	5.082.759	5.305.996	5.525.933	6.134.272
Museoak	3.794.190	4.638.280	4.525.953	4.918.852	5.349.750	5.784.732
Artxiboak	2.166.636	2.389.693	2.535.874	2.562.902	2.897.553	3.185.870
<b>KULTURA-EKINTZA + KSI</b>	<b>17.844.054</b>	<b>18.602.440</b>	<b>21.549.039</b>	<b>20.860.151</b>	<b>22.549.949</b>	<b>25.334.638</b>
Musika, dantza, antzerkia, zinematografia eta beste arte eszeniko batzuk	6.317.970	5.910.998	6.565.999	5.950.219	6.069.755	6.556.6133
Liburuaren sustapena eta kultura-argitalpenak	48.502	45.636	47.835	295.285	323.052	337.556
Kultura-sustapena eta -lankidetzak	11.477.582	12.645.806	14.935.205	14.614.647	16.157.142	18.440.469
<b>Guztizko orokorra</b>	<b>35.903.128</b>	<b>39.693.947</b>	<b>43.482.412</b>	<b>43.142.767</b>	<b>45.819.717</b>	<b>50.237.674</b>

Iturria: Nafarroako Gobernu Irekia, Nafarroako Aurrekontu Orokorrak.

## 2. Museoetarako transferentzia arruntak % 76 gehitu dira 2017 eta 2022 bitartean

2017-2022 aldirian egindako transferentzia arrunt guztien % 12,5 Ondarera bideratu da, eta ehuneko horretatik % 91,5 Museoetara. Ondarearen eremuan garrantzitsuak dira museoetarako transferentzia arruntak, 11 milioi euro inguru biltzen baitituzte 2017-2022 aldirian.

Transferentzia arrunten bilakaera, gastua nora bideratzen den arabera. 2017-2022

<b>Gastua nora bideratzen den:</b>	<b>2017</b>	<b>2018</b>	<b>2019</b>	<b>2020</b>	<b>2021</b>	<b>2022</b>	<b>2017-2022</b>
<b>Kulturako Zuzendaritza eta Zerbitzu Orokorrak</b>			<b>13.811</b>				<b>13.811</b>
<b>ONDAREA</b>	<b>1.575.599</b>	<b>1.697.050</b>	<b>1.739.387</b>	<b>1.907.067</b>	<b>2.139.815</b>	<b>2.901.928</b>	<b>11.960.846</b>
Ondare historikoaren administrazioa, kontserbazioa eta zaharberritzea, arkeologia	174.539	104.469	116.835	120.031	143.075	236.471	895.420
Liburutegiak			14.161	97		21.079	35.337
<b>Museoak</b>	<b>1.485.903</b>	<b>1.570.472</b>	<b>1.594.400</b>	<b>1.761.613</b>	<b>1.918.031</b>	<b>2.616.629</b>	<b>10.947.048</b>
Artxiboak	15.157	22.109	13.991	25.326	78.709	27.749	183.041
<b>KULTURA-EKINTZA + KSI</b>	<b>10.949.277</b>	<b>11.774.022</b>	<b>13.793.963</b>	<b>14.170.719</b>	<b>15.241.904</b>	<b>17.548.337</b>	<b>83.478.222</b>
Musika, dantza, antzerkia, zinematografia eta beste arte eszeniko batzuk	5.909.381	5.738.298	6.363.395	5.950.219	5.813.667	6.291.755	36.033.715
Liburuaren sustapena eta kultura-argitalpenak				140.149	142.538	146.786	429.473
Kultura-sustapena eta -lankidetzak	5.039.896	6.035.724	7.430.568	8.080.351	9.285.699	11.109.796	46.982.034
<b>Guztizko orokorra</b>	<b>12.624.876</b>	<b>13.471.072</b>	<b>15.547.161</b>	<b>16.077.786</b>	<b>17.381.719</b>	<b>20.450.265</b>	<b>95.552.879</b>

Iturria: Nafarroako Gobernu Irekia, Nafarroako Aurrekontu Orokorrak.

### 3. Ehuneko txikiagoa inbertitu da museoetan.

2017-2022 aldian Inbertsioetara bideratutako 21.436.621 milioi euroetatik, Ondareak 20,7 milioi euro bildu ditu, hau da, egindako inbertsio guztien % 96,4.

Ondarearen esparruan, museoak daude inbertsioen azken lekuan, 2017-2022 aldian inbertitutako guztizkoaren % 16arekin; lehenengoa, ondare historikoaren administrazioa, kontserbazioa eta zaharberritzea da, % 41ekin, eta, ondoren, artxiboek ( % 23) eta liburutegiak ( % 20).

Inbertsioen bilakaera, gastua nora bideratzen den arabera. 2017-2022

<b>Gastua nora bideratzen den:</b>	<b>2017</b>	<b>2018</b>	<b>2019</b>	<b>2020</b>	<b>2021</b>	<b>2022</b>	<b>2017-2022</b>
<b>Kulturako Zuzendaritza eta Zerbitzu Orokorrak</b>	<b>36.405</b>	<b>78.000</b>	<b>30.246</b>	<b>52.585</b>	<b>62.888</b>	<b>62.636</b>	<b>322.760</b>
<b>ONDAREA</b>	<b>1.917.716</b>	<b>3.489.383</b>	<b>3.460.848</b>	<b>3.621.626</b>	<b>4.178.147</b>	<b>3.987.451</b>	<b>20.655.171</b>
Ondare historikoaren administrazioa, kontserbazioa eta zaharberritzea, arkeologia	661.091	1.426.188	1.427.274	1.506.041	1.664.877	1.763.205	8.448.676
Liburutegiak	522.803	535.941	691.109	726.934	818.676	795.563	4.091.026
Museoak	224.877	851.296	523.902	584.843	704.064	390.362	3.279.344
Artxiboek	508.945	675.958	818.563	803.808	990.530	1.038.321	4.836.125
<b>KULTURA-EKINTZA + KSI</b>	<b>103.050</b>	<b>46.044</b>	<b>63.363</b>	<b>101.498</b>	<b>92.554</b>	<b>52.181</b>	<b>458.690</b>
Kultura-sustapena eta -lankidetzak	103.050	46.044	63.363	101.498	92.554	52.181	458.690
<b>Guztizko orokorra</b>	<b>2.057.171</b>	<b>3.613.427</b>	<b>3.554.457</b>	<b>3.775.709</b>	<b>4.333.589</b>	<b>4.102.268</b>	<b>21.436.621</b>

Iturria: Nafarroako Gobernu Irekia, Nafarroako Aurrekontu Orokorrak.

#### 4. Next Generation funtsak

Espainiako Gobernuaren Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak finantzaketa gehigarria eman dio Nafarroari, dirulaguntza gisa, turismo-erabilerako ondare historikoa mantentzeko eta birgaitzeko proiektu iraunkorrak finantzatzeko. Proiektu horretan sartzen da Nafarroako Museoan (Iruñea) energia hobetzeko proiektua, 2.472.877 euroko zuzkidurarekin.

#### 5. 2017-2023 NKPE-aren ekintzen aurrerapen nabarmena museoan esparruan

2017an, Nafarroako toki entitateekin batera lan egiteko plana jarri zen abian, Nafarroako Kultura Ondare Immaterialaren ondasunen inbentarioa egiteko. Inbentarioaren gauzatzea aurreratuta dago, eta udalerrri gehienetan bilketa-fasea amaitu da eta, transmisio-fasea garatzen ari da.

Nafarroako museoan eta museografia-bildumen funtzionamendu- eta jarduera-gastuen finantzaketa indartu da, lankidetzak-hitzarmenen eta hainbat dirulaguntza-ildoren ildoren bidez. Guztira, 11 milioi euro inguru bildu dira transferentzia arruntetan 2017-2022 aldian. Era berean, handitu egin dira museoetako inbertsioak egiten laguntzeko kapital-transferentziak, nahiz eta kapitulu honen bolumena nabarmen txikiagoa izan.



## 3.2.- Nafarroako museoen eta museografia-bildumen egungo egoerari buruzko zenbait erreferentzia

Nafarroako Foru Komunitateko museo eta museografia-bildumen kopurua egonkor mantendu da 2018tik geroztik.

Nafarroako museo eta museografia-bilduma iraunkorren bilakaera. 2016-2022

	2016	2018	2020	2022
Museoak	6	7	7	7
Museografia-bilduma iraunkorrak	4	6	6	7
<b>Guztira</b>	<b>10</b>	<b>13</b>	<b>13</b>	<b>14</b>

Iturria: Nafarroako Gobernu Museo Zerbitzua. Museo eta museografia-bilduma iraunkorren estatistika.

Entitate publiko zein pribatuak barne hartzen dituen sektorea.

Nafarroako museo eta museografia-bildumen kopuruaren bilakaera, titulartasunaren arabera. 2016-2022

Titulartasuna	2016	2018	2020	2022
<b>Guztira</b>	<b>10</b>	<b>13</b>	<b>13</b>	<b>14</b>
<b>Publikoa</b>	<b>6</b>	<b>6</b>	<b>6</b>	<b>6</b>
Admin. Autonomikoa	2	2	2	2
Tokiko admin.	4	3	4	4
Bestelakoak	--	1	--	--
<b>Pribatua</b>	<b>3</b>	<b>6</b>	<b>5</b>	<b>7</b>
Elizakoak	2	2	2	3
Fundazioa	1	3	2	3
Bestelakoak	--	1	1	1
<b>Mistoa</b>	<b>1</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>1</b>

Iturria: Nafarroako Gobernu Museo Zerbitzua. Museo eta museografia-bilduma iraunkorren estatistika.

10 enplegutik 7 eremu publikoan daude, eta heren batek baino gehiagok eremu pribatuan egiten du lan. 2016tik, museoen eta museografia-bildumen enpleguak % 17 egin du gora, baina 2020tik 2022ra % 30 egin du behera.

Museoetako eta museografia-bildumetako langile-kopuruaren bilakaera. 2016-2022

Enplegua	2016	2018	2020	2022
Titulartasun publikoa	52	55	56	49
Titulartasun pribatua	15	52	45	30
Titulartasun mistoa	2	2	15	2
<b>Guztira</b>	<b>69</b>	<b>109</b>	<b>116</b>	<b>81</b>

Iturria: Nafarroako Gobernu Museoen Zerbitzua. Museo eta museografia-bilduma iraunkorren estatistika.

Museo eta museografia-bildumetara egindako bisiten kopurua % 144 igo da 2016 eta 2022 artean, eta 2020an erregistratu da bisita-kopuru txikiena ( % 58 gutxiago), ziurrenik Covid-19aren pandemiaren ondorioengatik.

Museoen eta museografia-bildumen bisita-kopuruaren bilakaera Nafarroan. 2016-2022

Bisitak	2016	2018	2020	2022
Bisita kopurua	110.536	214.417	89.085	269.876
Museo eta museografia-bildumen kopurua	10	13	13	14

Iturria: Nafarroako Gobernu Museoen Zerbitzua. Museo eta museografia-bilduma iraunkorren estatistika.

Kultura-ohiturak eta -praktikak. Museoak bisitatzen dituzten biztanleen ehunekoak behera egin du Nafarroan.

Azken urteotan Nafarroan museoetara eta museografia-bildumetara egindako bisiten kopuruak gora egin badu ere, museoak bisitatzen dituen Nafarroako biztanleria 2014ko % 34tik 2022ko % 16,6ra jaitsi da. Izan ere, Nafarroako biztanleek museoekiko duten batez besteko interes-maila 4,3koa da 2022an, 0tik 10era bitarteko eskalan.

Nafarroako biztanleek museoetara ez joateko adierazi dituzten arrazoi nagusien artean, interes falta nabarmentzen da (% 32,2), eta horren atzetik, antzeko ehunekoetan, eskaintzarik eza (% 18,5), Covid-19ari lotutako arrazoiak (% 18,4) eta denborarik eza (% 18,2).

Azken urtean museoak bisitatu zituzten pertsonen ehunekoaren bilakaera. 2014-2022

Museoak	2014-2015	2018-2019	2021-2022
Museoetara egindako bisiten %	34,4	35,9	16,6

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa. Espainiako kultura-ohiturei eta -praktikei buruzko inkesta: Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak.

Pertsonen ehunekoaren bilakaera, museoen interes-mailaren arabera, Nafarroan (0-10eko balorazioa). 2014-2022

Balorazioa	2014-2015	2018-2019	2021-2022
10etik 9ra	8,6	12,1	6,2
8tik 7ra	22,4	27,4	19,9
6tik 5era	26,5	21,8	32,3
4tik 3ra	13,7	8,9	10,9
2tik Ora	28,9	29,7	30,7
<b>Batez besteko balorazioa</b>	<b>4,7</b>	<b>4,9</b>	<b>4,3</b>

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa. Espainiako kultura-ohiturei eta -praktikei buruzko inkesta: Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak.

Nafarroako museoetara ez joateko edo gehiagotan ez joateko arrazoi nagusiak (%). 2021-2022

Arrazoiak	%
Garestia	2,3
Zaila da sarrerak lortzea	0,2
Eskaintza txikia nire eremuan	18,5
Informazio gutxi	1,3
Nahiago bisita birtualak	0,2
Zaila etxetik ateratzea	4,4
Zaila ulertzea	2,0
Denborarik ez	18,2
Interesik ez	32,2
Ez du norekin joan	1,3
Esparrurako irisgarritasun fisiko arazoak	0,8
COVID-ari lotutako arrazoiak	18,4

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa. Espainiako kultura-ohiturei eta -praktikei buruzko inkesta: Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak.

### 3.3.- Museoen arloko lehen gogoetak eta erronkak

Atal honetan, museoen sektoreak gaur egun dituen erronka nagusiak identifikatzeko KZN-PVE-ko Museoen Zerbitzuarekin egindako hausnarketak biltzen dira.

Museoen sektorea arautzen duen arau-esparrua Nafarroako museo eta museografia-bilduma iraunkorrei buruzko uztailaren 2ko 10/2009 Foru Legeak ematen du. Lege horrek erakunde batek museo edo museografia-bilduma iraunkor gisa aitortua izateko bete behar dituen baldintzak ezartzen ditu; halaber, aintzatetsitako erakundeen eskubideak eta betebeharrak ezartzen ditu.

Gaur egun, Nafarroan, 80 museo-erakunde inguru daude, lege honek babesten ez dituenak, ezartzen dituen baldintzak betetzen ez dituztelako. Era berean, ez dira beste sail batzuen bidez artatzen, hala nola turismoaren edo tokiko garapenaren bidez, eta, beraz, ez dute Legeak ezartzen dituen baliabideak edo laguntzak eskuratzeko aukerarik. Hala ere, kultura materiala eta immateriala mantentzen laguntzen dute, lan-taldeekin eta garrantzi handiagoko edo txikiagoko kultura-ondasun material eta ez-materialen erakustaldiarekin. Nafarroako museoen esparruan planteatzen diren erronken zati handi bat errealitate horri nola erantzutean datza. Hona hemen identifikatutako erronketako batzuk:

### 1. Kategoria berriak sortzeko beharra

Beharrezkoa ikusi da Museoen Legeak babesten ez dituen erakundeak kategorizatzea, erakusketa-erakundeak eta museoetako arkeologia-aztarnategiak definituko dituzten kategoriak sortuz, halako erakundeak Museoen Legean txertatuta gera daitezzen..

### 2. Museoen Sistema birplanteatzeko beharra

Legean jasotako egungo museo-sistemak erreferentziazko museoak eta museografia-bildumak biltzen ditu, bidea markatzen dutenak, eta sistema horri atxikitzea borondatezkoa da. Hala ere, sistema horrek betebehar gehiago ezartzen dizkie atxikitako erakundeei gainerakoei baino, eta, ondorioz, atxikipen gutxiago daude..

### 3. Dirulaguntzen esparruari buruz hausnartzeko beharra

Gaur egun hiru deialdi daude: funtzionamendurako dirulaguntzak (gastu arruntak: langileak, hornidurak, mantentze-lanak...); zabalkunde-jarduerak eta -ekintzak; inbertsioak (hobekuntzak). Museo-erakundeen gastu arruntak diruz laguntzen dituen lerroa berraztertu beharko litzatekeen bitxikeria bat da, eta jarduera-proiektu batekin batera aurkezteko eskakizuna ezarri beharko litzateke.

### 4. Profil eta lanbide-kategoria egokiak behar dira museoetan kultura-programazioak garatzeko

Legeak babesten ez dituen museo-erakundeetako plantillak ez dira nahikoak, eta ez dute betetzen dituzten eginkizunak garatzeko lanbide-profil egokirik.

## BIGARREN ZATIA

### 4.- 2024-2028 NKPE berri baterako gogoetak eta ideiak partekatzen

Saioaren zati honetan, hausnarketa partekatua egingo dugu bi ikuspuntutik:

1º.

Nafarroan kulturaren arloan dauden beharrak, zailtasunak eta ahuleziak identifikatuko ditugu

- Balio-katea oinarritzat hartuta, museoekin lotutako hausnarketa-elementu batzuk planteatzen ditugu
- Hautatu kulturaren lan egitea LEHENTASUNEZKOTZAT dituzun 4 eremu
- Adierazi ZERGATIK uste duzun zailtasun/behar handiagoa dutela

Horretarako Fitxa 1 jartzen dizugu eskura  
(banakako lana + taldekako gogoeta)

2º.

Idea eta ekarpen MAPA BAT marraztuko dugu, lehenetsi ditugun beharrei erantzuteko.

- Lehen identifikatu den dimentsio-maila bakoitzerako, asmoa da taldean ondorengo galderari erantzutea: nola erantzun diezaiekegu aurkitutako zailtasunei?
- Zer proposatzen dugu Nafarroan museoaren egoera hobetzeko?

Horretarako Fitxa 2 jartzen dizugu eskura  
(taldekako lana + taldekako gogoeta)

1. Dinamika. **GOGOETA-ELEMENTUAK**, balio-katetik eta beste gogoeta batzuetatik abiatuta proposatzen ditugunak, Nafarroako museoen eremuko beharrak, zailtasunak eta ahuleziak identifikatzeko. Hasieran planteatu ez diren beste gai batzuk identifikatzeko proposamen irekia (1. fitxarekin batera joango da bakarkako lanerako).

Sektorearen  
profesionalizazioa  
(kategoriak, profilak)

Kultura-eskaintza  
(eduki artistikoaren  
kalitatea, lurraldera  
zabaltzea, berrikuntza...)

Kultura-ohitura eta  
-kontsumoa  
(bisitarien ikerketa,  
bisitariekin harremana...)

Balioan jartzea eta  
zabalkundea

Ikerkuntza,  
eraldaketa  
digitala,  
berrikuntza

Baliabideak eta  
laguntzak

Profesionalen  
prestakuntza

Sareak sortzea,  
beste sektoreekin  
aliantzak (turismoa...)

Beste gai batzuk

Beste gai batzuk

Beste gai batzuk

Beste gai batzuk



## 2. Dinamika. Ideia eta ekarpen MAPA BAT marraztuko dugu, lehenetsi ditugun beharrei erantzuteko

Lehenetsitako eremua	Nola hobetu dezakegu egoera? Garatzeko/indartzeko ideiak	Erantzukizunak: garapenerako eragile nagusiak (administrazio publikoa, kultur eragileak, herritarrak, hirugarren sektorea...)
<b>Eremu 1</b>		
<b>Eremu 2</b>		
<b>Eremu 3</b>		
<b>Eremu 4</b>		

**Eskerrak** eman nahi dizkiegu Nafarroan datozen urteetako  
Kultura Plan Estrategiko bat eraikitzeko erronkan  
**aktiboki parte hartu duten pertsona  
eta erakunde guztiei**